

## 14. atala ESKOLAK

- *Jone, Eskolako lagunak ikusteko irrikatan nago! – Aritzi eskolara joatea gustatzen zitzaien, baina bereziki, lagunekin jolastea zuen gustuko.*
- *Nik ere lagun handiak egin nituen eskolan.*
- *Zu ere Maiztegira joan zinen ez da ala? – Galdetu zuen Aritzen erantzuna bazekien arren.*
- *Bai ba! Eta gero Juan Orobiogoitiara DBH garaian.*
- *Zer izen arraroak dituzten gure eskolek!*

Aritz eta Jone berba eta berba ari ziren eskoletarako bidea hartuta eta neskari otuz zitzaien momentu egokia izan zitekeela herriko eskolen inguruan zekiena neba txikiari kontatzeko.

- *Begira Aritz, 1794. urtean Juan Orobiogotia lurretarrak, Perun hil zenean, bere diruen parte bat lurretan eskola bat eraikitzeke utzi zuen.*
- *Bai eskuzabala gero! – Bota zuen mutilak pozik.*
- *Hasieran Montoi inguruan egon zen eskola hori eta gero plazan hasi ziren eskolak ematen “eskola zaharrak” izeneko eraikinean.*
- *Hori al zen lurretako eskola bakarra?*
- *Hasiera batean bai, baina 1919. Urtean, auzo eskolak sortzen hasi ziren lurretarrak inguru haietako haurrek ere ikasi ahal izan zezaten. Orduan sortu ziren Oromino, Amezketa eta Orozketako eskolak.*
- *Zeinen ondo! Eskola txikiak izango ziren!*
- *Bai... Urte batzuk beranduago Juan Orobiogoitiaren diruaz sortutako eskola eraikin berri batera pasa eta “Maiztegui” izena hartu zuen. Hala ere eskola honetan gazte-*

## ARIKETA:

- Horra marrazkian lurretako plazan zegoen “Eskola zaharrak” eraikina. Marraztuko zenuke zure eskola?

*Ieraz ikasten zuten haurrek eta euskararekiko atxikimendu handia zuten gazte batzuek lurretako “Goiuria Ikastola” haur eskola sortu zuten.*

- *Aupa! Aupa! Haiek bai haiek langileak!*
- *Beranduago, Goiuria Ikastola eta Maiztegui eskola batu eta “Maiztegi Herri Eskola” sortu zen.*
- *Gaur egun, Lehen Hezkuntzako eskolak Maiztegi Herri Eskola du izena eta Bigarren Hezkuntzakoak Juan Orobiogotia.*
- *Eta Goiuria Ikastola?*
- *Lokal hura herriko eragile asko eta askok erabili ondoren, jabeek udalari eman zioten herriko elkarteek erabil zezaten eta orain Gauria Kultur Gunea bezala ezagutzen dugu.*

